AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR

BERRIOZARko UDALA

## CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA PALIAR LOS EFECTOS DE LA COVID-19 EN COMERCIOS Y HOSTELERÍA QUE SE DESARROLLAN EN LA LOCALIDAD DE BERRIOZAR

### BASES

### 1. Introducción.

El Ayuntamiento de Berriozar desea ayudar a paliar los efectos económicos que el COVID-19 está teniendo en las actividades económicas de comercio y hostelería que se desarrollan en la localidad.

La presente convocatoria pretende apoyar y facilitar la continuidad del empleo autónomo que se desarrolla en la localidad de Berriozar, mediante la concesión de ayudas extraordinarias entre aquellas personas autónomas y pequeñas empresas que desarrollan una actividad económica en Berriozar que se hayan visto afectadas por las medidas de contención en el ámbito de la actividad comercial, actividades de hostelería y restauración.

Las subvenciones que constituyen el objeto de la presente convocatoria tienen carácter excepcional y se regirán por lo establecido en la presente convocatoria; en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; en el Reglamento General de la Ley de Subvenciones aprobado por Real Decreto 886/2006, de 21 de julio; en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; en el Real Decreto 130/2019, de 8 de marzo, por el que se regula la Base de Datos Nacional de Subvenciones y la publicidad de las subvenciones y demás ayudas públicas; en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Berriozar y en las restantes normas de derecho administrativo que en su caso sean aplicables.

El procedimiento para la concesión de estas subvenciones será en régimen de evaluación individualizada.

## DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, COVID-19AREN ONDORIOAK ARINTZEKO, JARDUNA BERRIOZARREN GARATZEN DUTEN SALTOKI ETA OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAN

### OINARRIAK

### 1. Sarrera

Herriko saltokietan eta ostalaritzako establezimenduetan garatzen diren jardueretan COVID-19a izaten ari den ondorio ekonomikoak arintzen lagundu nahi du Berriozarko Udalak.

Deialdi honen bidez, Berriozarko udalerrian garatzen den enplegu autonomoaren jarraitutasuna babestu eta erraztu nahi da. Horretarako, aparteko laguntzak emango zaizkie Berriozarren jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona autonomoei eta enpresa txikiei, baldin eta jarduera horren gain eragina izan badute euste-neurriek, merkataritza-jardueraren, ostalaritzako eta jatetxeetako jardueren esparruan.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak apartekoak dira, eta arautuko dira honako hauetan ezarritakoaren arabera: deialdi honetan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean; uztailaren 21eko 886/2006 Errege Dekretuak onetsitako Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean; Dirulaguntzen Datu Base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretuan; Berriozarko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean; eta aplikagarriak diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauetan.

Dirulaguntza hauek bana-banako ebaluazioaren prozedura erabiliz emango dira.

**2. Créditos presupuestarios.**

Las subvenciones tienen carácter extraordinario, se financiará con cargo a la partida 431204890002 FONDO APOYO A COMERCIOS Y HOSTELERIA COVID19 y la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas es de 15.000 euros.

**3. Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de la subvención.**

La subvención tiene por finalidad apoyar a la continuidad del empleo de las personas autónomas y pequeñas empresas que desarrollan una actividad económica en la localidad de Berriozar (Navarra), así como el relanzamiento de los negocios que se han visto afectados por la crisis provocada por el coronavirus, mediante la concesión de ayudas extraordinarias para personas que trabajan por cuenta propia (en régimen autónomo o titulares de un negocio con máximo de 2 personas empleadas a su cargo) y que se vean afectadas por la imposibilidad de ejercer su profesión debido a un aislamiento preventivo, o por cuidado de menores de 14 años o de personas dependientes a su cargo en aislamiento preventivo (siempre que no opten por las ayudas de la seguridad social orientadas al pago de una persona cuidadora para la persona menor durante el confinamiento preventivo) y demuestren la imposibilidad de desarrollar su trabajo.

La concesión de las ayudas contempladas en la presente convocatoria se sujetará a los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, así como la eficacia en el cumplimiento de objetivos y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

**4. Requisitos para ser beneficiarios/as de las ayudas**

Podrán ser beneficiarias de las ayudas que contemplan las presentes bases las personas que trabajan en régimen de autónomas, con o sin establecimiento, que ejerzan una actividad mercantil y cumplan los siguientes requisitos:

**2. Aurrekontuko kredituak**

Dirulaguntzak apartekoak dira, 431204890002 SALTOKIAK ETA OSTALARITZA LAGUNTZEKO FUNTSA COVID-19 partidaren kargura finantzatuko dira, eta deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa da.

**3. Dirulaguntzen xedea, baldintzak eta helburua**

Dirulaguntzaren helburua da Berriozarko udalerrian (Nafarroa) jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona autonomoen eta enpresa txikietako enpleguaren jarraitutasunari laguntzea, eta koronabirusak eragindako krisiak ukitutako negozioei bultzada ematea. Horretarako, aparteko laguntzak emango zaizkie beren kontura lan egiten duten pertsonei (autonomoen erregimenean edo beren kontura gehienez ere 2 pertsona dituzten negozio baten titularrak izanda), baldin eta lanbidea gauzatzea ezinezkoa bazaie prebentzioz bakartuta daudelako, edo 14 urtetik beherako adingabeak edo mendeko pertsonak dituztelako beren kontu prebentzioz bakartuta (baldin eta ez badituzte aukeratu Gizarte Segurantzaren laguntzak, prebentziozko konfinamenduan adingabearentzat zaintzaile bati ordaintzera bideratutakoak), eta lana egitea ezinezkoa zaiela frogatzen badute.

Deialdi honetan jasotako dirulaguntza hauek emateko, printzipio hauek bete beharko dira: publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean.

**4. Laguntzen onuradun izateko baldintzak**

Oinarri hauek jasotzen dituzten laguntzen onuradun izan ahal izango dira autonomoen erregimenean lan egiten duten pertsonak, establezimenduarekin edo gabe, merkataritzako jarduera bat gauzatzen dutenak eta baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Las personas físicas empadronadas en la localidad, que tengan la condición de trabajador/a autónomo y que estén dadas de alta en el Impuesto de Actividades económicas en la localidad de Berriozar.
b) Las personas físicas que, sin estar empadronadas en Berriozar, tengan la condición de trabajador/a autónomo, estén dados de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en Berriozar y tengan abierto en Berriozar local comercial o afecto a la actividad económica que desarrollan.
c) Titulares de establecimientos con un máximo de 2 personas trabajadoras, empresarios individuales y empleados de establecimiento que tengan domicilio fiscal en Berriozar, estén dadas de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en Berriozar y que tengan abierto en Berriozar local comercial o afecto a la actividad económica que desarrollan.

Se tendrá derecho a la ayudas cuando alguna de las personas incluidas en los apartados anteriores sufra un cese temporal extraordinario de su actividad por causa de un aislamiento preventivo por COVID 19 y no se encuadren en ninguna de las ayudas o prestaciones oficiales.

Las personas beneficiarias de las ayudas deberán cumplir los siguientes requisitos:

1) Estar al corriente de sus obligaciones de cotización con la seguridad social u organismo equivalente así como de sus obligaciones fiscales con la Hacienda Foral de Navarra y con el Ayuntamiento de Berriozar. Para ello deberán aportar certificado de estar al corriente en sus obligaciones con la seguridad social y con Hacienda Tributaria de Navarra. El ayuntamiento de oficio comprobará que están al corriente con el

a) Herrian erroldatutako pertsona fisikoak, baldin eta langile autonomoak badira eta Berriozarko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda badaude.
b) Berriozarren erroldatuta egon ez arren, langile autonomoak diren eta Berriozarko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dauden pertsona fisikoak, baldin eta Berriozarren merkataritza-lokal bat irekita badute edo garatzen duten jarduera ekonomikoari lotuta dagoena.
c) Gehienez ere 2 langile dituzten establezimenduen titularrak, bakarkako enpresaburuak eta zerga-helbidea Berriozarren duen establezimenduko langileak, Berriozarko Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenak, eta Berriozarren merkataritza-lokal bat irekita dutenak edo garatzen duten jarduera ekonomikoari lotuta dagoena.

Laguntzak jasotzeko eskubidea izango da aurreko ataletan sartutako pertsonetako batek bere jardueran aldi baterako etenaldi ezohikoa egin behar badu, COVID-19arengatik prebentzioz bakartu behar delako, eta ez bada sartzen laguntza edo prestazio ofizialetako bakar batean ere.

Laguntzen onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

2) Gizarte Segurantzako edo erakunde baliokideko kotizazio betekizunak beteak izatea, baita Nafarroako Foru Ogasuneko eta Berriozarko Udaleko betekizun fiskalak ere. Horretarako, Gizarte Segurantzako eta Nafarroako Zerga Ogasuneko betekizunak beteta daudela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Udalak ofizioz egiaztatuko du Udaleko betekizunak beteta daudela.
Baldintza hau ezin izango da zuzendu eta ez da laguntza jasotzeko

ayuntamiento.
Este requisito no será subsanable y no se tendrá derecho a la ayuda si en el momento de la solicitud no están al corriente en sus obligaciones con la hacienda tributaria de Navarra, con la seguridad social y con el Ayuntamiento de Berriozar.

2) Disponer de las licencias que sean precisas para el ejercicio de la actividad.

**5. No podrán ser beneficiarias de esta ayuda**

- Trabajadores/as por cuenta ajena.
- Los trabajadores/as por cuenta propia que hayan solicitado la baja por contagio o convivencia con una persona contagiada.
- Aquellos trabajadores/as por cuenta propia o con negocio propio que tengan más de dos empleados/as.
- Aquellos trabajadores/as por cuenta propia que, cumpliendo los requisitos de concesión de la ayuda, ya hayan percibido esta misma ayuda en ocasión anterior. (Esta ayuda es una concesión de carácter único e intransferible).
- Quienes hayan optado por las ayudas de la seguridad social orientadas al pago de una persona cuidadora para el menor durante el confinamiento preventivo.

**6. Plazo para presentación de solicitudes**

El plazo de solicitud finalizará el 28 de diciembre de 2020 (sin perjuicio de prorrogar el mismo). Se contemplarán dentro de esta ayuda las solicitudes que acrediten situación de aislamiento preventivo sin derecho a otro tipo de ayudas, desde el día 1 de septiembre de 2020.

Las solicitudes se formularán en el modelo que figura como Anexo de esta convocatoria. Se dirigirán al Alcalde del Ayuntamiento, y se presentarán en el Registro de entrada del

eskubiderik izango eskaera egiten unean ez badaude beteak Nafarroako Zerga Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Berriozarko Udaleko betekizunak.

2) Jardueran aritzeko beharrezkoak diren lizentziak izatea.

**5. Ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan pertsona hauek**

- Besteren konturako langileak.
- Beren konturako langileak, baldin eta baja eskatu badute kutsatzeagatik edo kutsatutako pertsona batekin bizitzeagatik.
- Beren konturako langileak edo beren negozioa dutenak, baldin eta bi langile baino gehiago badituzte.
- Beren konturako langileak, laguntza jasotzeko baldintzak bete arren, aurreko batean jaso badute laguntza berbera (laguntza hau behin bakarrik emango da eta besterenezina da).
- Gizarte Segurantzaren laguntzak aukeratu dituzten pertsonak, prebentziozko konfinamenduan adingabearentzat zaintzaile bati ordaintzera bideratutakoak.

**6. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskatzeko epea 2020ko abenduaren 28an amaituko da (epea luzatzeari kalterik egin gabe). Laguntza honen barnean kontuan hartuko dira prebentziozko bakartze-egoera egiaztatzen duten laguntzak, beste mota bateko laguntzetarako eskubiderik gabe, 2020ko irailaren 1etik aurrera.

Eskaerak deialdiaren eranskineko ereduaren arabera egingo dira. Udaleko alkateari zuzenduko zaizkio, eta Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari

Ayuntamiento o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Deberán acompañarse a la solicitud los documentos siguientes:

- Instancia de solicitud dirigida al Ayuntamiento de Berriozar (Anexo I).
- Notificación de la cuarentena y del cese de la cuarentena. PCR negativo de la persona menor de 14 años o de la persona dependiente y libro de familia y/o justificante médico de la dependencia.
- Toda documentación que acredite verazmente el cierre temporal o imposibilidad de ejercer la profesión por causa de confinamiento preventivo o declaración jurada donde se refleje esa imposibilidad.
- Declaración firmada de no haber solicitado otras ayudas similares.
- En caso de responsabilidad compartida de la persona menor o dependiente, justificante laboral de la otra parte de que está trabajando y tampoco puede hacerse cargo del acompañamiento o declaración jurada en caso de justificar otras circunstancias distintas.
- Fotocopia del DNI (personas físicas) y escritura de constitución o modificación (personas jurídicas), así como el CIF de la empresa, si procede.
- Copia de la licencia de actividad y/o de apertura del establecimiento donde se desarrolla la actividad.
- Justificante de alta en el impuesto de actividades económicas en el que conste el epígrafe de la actividad.
- Certificado acreditativo de encontrarse al corriente de las obligaciones frente a la Seguridad Social, Hacienda Pública de Navarra y Ayuntamiento de Berriozar.
- Declaración responsable de que reúne los requisitos generales para obtener la condición de beneficiario (Anexo I).

buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako bideetako edozeinen bitartez.

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, Berriozarko Udalari zuzendua (I. eranskina).
- Berrogeialdiaren eta berrogeialdia amaitzearen jakinarazpena. 14 urtetik beherakoaren edo mendeko pertsonaren PCR negatiboa, eta familia-liburua eta/edo mendekotasunaren mediku-frogagiria.
- Prebentziozko konfinamenduaren ondorioz aldi baterako ixtea edo lanbidea gauzatu ezina egiazko eran egiaztatzen duen agiri oro edo ezintasun hori jasotzen duen zinpeko deklarazioa.
- Antzeko beste laguntza batzuk eskatu ez izanaren adierazpen sinatua.
- Adingabearen edo mendeko pertsonaren ardura partekatua edukiz gero, beste aldea lanean ari dela eta ezin diola lagun egin adierazten duen lan-frogagiria edo zinpeko deklarazioa, beste inguruabar desberdin batzuk justifikatu behar badira.
- NANaren fotokopia (pertsona fisikoak) eta eraketa- edo aldaketa-eskriturarena (pertsona juridikoak), baita enpresaren IFK ere, hala badagokio.
- Jarduera garatzen den establezimenduaren jarduera-lizentziaren eta/edo irekiera-lizentziaren kopia.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman izanaren egiaztagiria, jardueraren epigrafea jasotzen duena.
- Gizarte Segurantzarekin, Nafarroako Ogasun Publikoarekin eta Berriozarko Udalarekin dituen betekizunak beteak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Erantzukizunpeko adierazpena, onuradun izateko baldintza orokorrak betetzen direla dioena (I. eranskina).
- Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena eskatzaileak bere gain

- Declaración responsable en la que se haga constar que la persona solicitante asume las obligaciones que la ordenanza general de subvenciones y la normativa vigente establece para las y los beneficiarios de las ayudas (Anexo I).
- Certificado bancario de titularidad de número de cuenta o comunicación de que la ayuda se ingrese en el número de cuenta en el que el ayuntamiento domicilia los pagos de sus recibos del impuesto de actividades económicas.
- En el caso de solicitar subvención por personas empleadas a su cargo, documento que acredite el número de personas trabajadoras de la empresa: RNT (relación nominal de trabajadores)
- Copia del libro de familia.
- Indicación de una dirección de correo electrónico, en la que ayuntamiento podrá solicitar la subsanación de la documentación, o aclaración de las circunstancias que han motivado el cese de las actividades que dan lugar a la subvención. Las comunicaciones que el ayuntamiento realice en dicha dirección de correo tendrán plenos efectos notificatorios.

El Ayuntamiento podrá exigir cualquier documentación que considere aclaratoria o de interés para resolver el expediente.

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la norma de convocatoria, el órgano competente requerirá a la persona interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud.

**7. Órgano competente para la instrucción y resolución del procedimiento**.

La instrucción del procedimiento corresponde a la Presidencia de la Comisión de Estructura Municipal del Ayuntamiento de Berriozar asistida por la Intervención municipal.

La intervención municipal examinará las

hartzen dituela dirulaguntzen ordenantza orokorrak eta indarrean dagoen araudiak laguntzen onuradunei ezartzen dizkieten betebeharrak (I. eranskina).

- Kontu-zenbakiaren titulartasunaren bankuko ziurtagiria edo jakinarazpena. Jakinarazpen horretan, hain zuzen, jasoko da laguntza sartzeko Udalak Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ordainagiriak helbideratzen dituen kontu-zenbakian.
- Bere ardurapeko enplegatuengatik dirulaguntza eskatuz gero, enpresako langile-kopurua egiaztatzen duen agiria: RNT (langileen izen-zerrenda).
- Familia-liburuaren kopia.
- Helbide elektroniko bat. Haren bidez, Udalak eskatu ahal izango du dokumentuak zuzentzeko edo dirulaguntza eragiten duten jarduerak etetea ekarri duten inguruabarrak argitzeko. Udalak helbide elektroniko horren bidez egiten dituen komunikazioek jakinarazteko eragin osoak edukiko dituzte.

Udalak edozein dokumentazio eskatu ahal izango du, baldin eta argigarria bada edo espedientea ebazteko interesekoa.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdiaren araudian ezarritako baldintzak, eskumena duen organoak errekerituko dio interesdunari horiek zuzen ditzan, gehienez ere 10 eguneko epe luzaezinean, eta ohartaraziko dio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

**7. Prozedura instruitu eta ebazteko eskumena duen organoa**

Prozeduraren instrukzioa Berriozarko Udaleko Udal Egituraren Batzordearen Lehendakaritzari dagokio, udal kontu-hartzailetzaren laguntzarekin.

Udal kontu-hartzailetzak aztertuko ditu

solicitudes y la documentación aportada por las personas solicitantes conforme a los criterios establecidos en la convocatoria, pudiendo requerir para ello cuanta información complementaria o aclaratoria considere preciso, pudiendo recabar cuantos informes estime necesarios para resolver, así como evaluar las solicitudes que se presenten en tiempo y forma, todo ello de conformidad con el artículo 24 de la Ley 38/2003, de 14 de noviembre, General de Subvenciones.

Corresponderá a la Junta de Gobierno Local la resolución de las solicitudes presentadas.

La resolución, además de contener el solicitante o relación de solicitantes a los que se concede la subvención, hará constar, en su caso, de manera expresa, la desestimación del resto de las solicitudes.

El plazo máximo de resolución y notificación será de tres meses.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legitima a los interesados para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

**8. Criterios de valoración de solicitudes**

El procedimiento de concesión se hará con base en el análisis de la documentación aportada y caso a caso siempre que cumplan los requisitos detallados en estas bases. El valor máximo de la ayuda será de 30 euros/día con un máximo de 300 euros por persona trabajadora.

La concesión de las ayudas se supeditará en todo caso a la existencia de consignación presupuestaria.

**9. Medios de notificación o publicación.**

Las notificaciones se practicarán en el lugar y por el medio que la persona solicitante haga constar a tal efecto en la solicitud, teniendo en cuenta lo establecido a estos efectos en el

eskabideak eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa, deialdian ezarritako irizpideen arabera, eta, horretarako, eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri edo argigarri oro, ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak, bai eta behar den epean eta moduan aurkezten diren eskabideak ebaluatu ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 14ko 38/2003 Lege Orokorraren 24. artikuluarekin bat etorriz.

Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio aurkeztutako eskabideak ebaztea.

Dirulaguntza hartuko duten eskatzaileen zerrenda jaso beharko da ebazpenean, eta horrez gain, espresuki adieraziko da zein eskaera ezetsi diren, halakorik baldin bada.

Ebazpena eman eta jakinarazpena egiteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.

Gehieneko epea ebazpena jakinarazi gabe amaitzen bada, interesdunek zilegi izango dute dirulaguntza emateko eskabidea onetsi gabetzat jotzea administrazio isiltasunaren bidez.

**8. Eskaerak baloratzeko irizpideak**

Laguntza emateko prozedura aurkeztutako dokumentazioa aztertzean oinarrituta egingo da, eta kasuz kasu, betiere kontuan hartuta oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen direla. Laguntzaren gehieneko balioa eguneko 30 eurokoa izango da, eta langile bakoitzeko gehienez 300 euro emango dira.

Edonola ere, laguntzak ematea aurrekontuan kontsignatzea egotearen mende egongo da.

**9. Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak**

Eskatzaileak eskabidean horretarako adierazitako tokian eta moduan egingo dira jakinarazpenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko

artículo 41 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan horretarako ezarritakoa kontuan hartuta.

**10. Obligaciones de las personas beneficiarias.**

Las personas beneficiarias de estas subvenciones tendrán las obligaciones establecidas con carácter general en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Berriozar.

**10. Onuradunek bete beharrekoak**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betekizun orokorrak bete beharko dituzte onuradunek eta bai Berriozarko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean jasotzen direnak ere.

**11. Reintegro de las ayudas, infracciones y sanciones.**

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la convocatoria, el ocultamiento, falseamiento o tergiversación de los datos facilitados, y la obstrucción de las labores de comprobación de los hechos y circunstancias determinantes para la concesión de las ayudas dará lugar al reintegro total de las cantidades percibidas, en los términos establecidos en el título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones.

Las personas beneficiarias de las ayudas y subvenciones estarán sometidas al régimen de infracciones y sanciones contenido en el título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones y en la Ordenanza General de Subvenciones del ayuntamiento de Berriozar.

**11. Dirulaguntzak itzultzea, arau-hausteak eta zehapenak**

Deialdi honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, datuak ezkutatzen badira, datu faltsuak edo desitxuratuak ematen badira, edo laguntzak emateko erabakigarriak diren egitate eta inguruabarrak egiaztatzeko lanak oztopatzen badira, jasotako zenbateko guztiak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan ezarritako baldintzetan.

Laguntzen eta dirulaguntzen onuradunek arau-hausteen eta zehapenen araubidea bete beharko dituzte, hau da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan ezarritakoa eta Berriozarko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean jasotzen direnak.

**12. Incompatibilidad de las ayudas.**

Las ayudas objeto de la presente convocatoria serán incompatibles con la percepción de cualquier otra subvención o ayuda por la misma causa.

**12. Dirulaguntzen bateraezintasuna**

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak bateraezinak izango dira arrazoi berberarengatik ematen den beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

**13. Protección de datos de carácter personal.**

A tenor de lo establecido en la Ley Orgánica

**13. Datu pertsonalak babestea**

3/2018 de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se le informa que los datos personales facilitados, se utilizarán exclusivamente para la gestión de la ayuda regulada en la presente convocatoria y podrán ser incorporados a los ficheros que conforman las bases de datos del Ayuntamiento de Berriozar.

Responsable: Ayuntamiento de Berriozar. Finalidad: Gestionar las ayudas y subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento. Derechos: Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional. Información adicional: La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegada de Protección de Datos está disponible en el apartado de Política de Privacidad de la Web municipal www.berriozar.es dpd@berriozar.es.

**14. Régimen de recursos.**

Contra la presente convocatoria, sus bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas, podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

Recurso de reposición ante el mismo órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes.

Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de un mes.

Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Pamplona en el plazo de dos meses.

Los plazos se computarán a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

Berriozar, a 4 de noviembre de 2020

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan jasota dagoena betetzeko, adierazten da emandako datu pertsonalak deialdi honetan araututako laguntza kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta Berriozarko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan sartu ahal izango direla.

Arduraduna: Berriozarko Udala. Xedea: Udalak emandako laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea. Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, eta bai beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den moduan. Informazio gehigarria: datuen tratamenduari eta Datuen Babesaren Ordezkariari buruzko informazio gehigarria eta zehatza Udalaren webguneko (www.berriozar.es) Pribatutasun Politika atalean dago eskuragarri, dpd@berriozar.es.

**14. Helegiteak**

Deialdi honen, haren oinarrien eta hura gauzatzeko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, hautaz, ondoko helegiteetako bat aurkez daiteke:

Berraztertzeko helegitea, administrazio-egintzaren egile den udal organo berberaren aurrean, hilabeteko epean.

Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean.

Administrazioarekiko auzi-helegitea, Iruñeko Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean.

Hel egindako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

Berriozarren, 2020ko azaroaren 4a